

**“A-1 OKENDO IUAn UDALETXEA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRAK”
PROZEDURA IREKIAN, ESKAINTZA EKONOMIKOKI ONURAGARRIENAREN ARABERA
ETA ADJUDIKAZIOKO HAINBAT IRIZPIDEREN ARABERA KONTRATATZEKO KLAUSULA
ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA.**

1.- KONTRATUAREN XEDEA

1. Kontratuaren xedea “A-1 Okendo IUAn Udaletxea Eraberritzeko eta Handitzeko Obrak” gauzatzea da, udaleko arkitekto José Manuel Elicegui Sarobe jaunak eta kanpoko kolaborazioak idatzitako gauzatzeko proiektu teknikoaren arabera, I. Eranskinean zehazten den moduan.

2. Aipatutako proiektuak eta haren baldintza teknikoen agiriek, planoek eta prezio-taulek, klausula administratiboen dokumentu honekin batera, kontratuzko balioa izango dute.

2.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA FORMA

Kontratua prozedura irekian, eskaintza ekonomikoki onuragarrienaren arabera eta adjudikazioko hainbat irizpideren arabera adjudikatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak (SPKL) 141.etik 145.era bitarteko artikuluetan eta 134.etik 136.era bitartekoetan xedatzen duenaren arabera.

3.- LIZITAZIOKO OINARRIA EDO TASA

1. Obren kontratuaren aurrekontu totalak hamaika milioi ehun eta hirurogeita bat mila zortziehun eta laurogeita hamasei euro eta berrogeita hemeretzi zentimo egiten du, BEZa barne (11.161.896,59 €).

Prezio hori honela desglosatua geratzen da: balio estimatua 9.622.324,65 euro, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga 1.539.571,94 euro.

4.- ADJUDIKAZIORAKO OINARRI GISA BALIOKO DUTEN IRIZPIDEAK

1. Administrazioak, lehiaketa esleitu gabe utzi ezean, kontratua eskaintzarik onuragarrienari adjudikatuko dio, haren balio ekonomikoa nahitaez erreparatu beharrik gabe.

2. Kontratua adjudikatzeko kontuan izan beharreko irizpideak, eskaintzari aplikatzekoak direnak, bai eta haien ponderazioa ere, ondoko hauek izango dira:

- Lizitazioko oinarria beherantz hobetzea, 20 puntu. Kalkulatzeko, eskaintzarik hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaio puntu-kopuru maximoa, eta 0 puntu lizitazioko oinarria berdintzen duen proposamenari; gainerakoak, berriz, interpolatu egingo dira.
- Obraren estudioa: 0 eta 30 puntu bitartean

- Obra espezifikoen Esplikaziozko Memoria Teknikoa, bereziki azpimarratuz gauzatzeko lanak egingo diren espazioari eta lekuari hura ongi egokitzea, bai halaber zirkulazioan edo beste edonolako zerbitzuetan eraginak gutxitzea. (0-10 puntu).
- Obretako Segurtasunari eta Osasunari buruzko Estudioa, kontuan hartuz ibilgailuak nahiz oinezkoak obrara iristeko sarbide behin-behinekoak, pilaketen lokalizazioa eta segurtasunaren arloko prebentziozko neurri kolektiboak eta indibidualak. (0-10 puntu).
- Obrak gauzatzeko beharrezko lanen azpikontratazio maila, gehieneko puntu-kopurua azpikontratazio gutxienekoari emango zaiolarik. (0-10 puntu).

Azpikontratazio maila azpikontrataturiko obraren aurrekontuaren arabera baloratuko da, lizitazioko aurrekontuari dagokionez.

- Lanen programa, 20 puntu. Gehienez ere 20 punturekin baloratuko da obraren planning zehaztu bat aportatzea, faseekin.
- Burutzeko epea hobetzea, 20 puntu. Kalkulatzeko, eskaintzarik hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaizkio puntu gehien, eta 0 puntu lizitazioan ezarritako epeak berdintzen dituen proposamenari; gainerakoak interpolatu egingo dira.
- Bermeko epea, 5 puntu. Kalkulatzeko, eskaintzarik hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaizkio puntu gehien, eta 0 puntu lizitazioan ezarritako epeak berdintzen dituen proposamenari; gainerakoak interpolatu egingo dira.
- Langile enplegugabeak baliatzea, 5 puntu. Kalkulatzeko, eskaintzarik hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaio puntu-kopuru maximoa.

Obrak gauzatzeko epea murrizteaz den bezainbatean, aintzat hartuko da, betiere behar bezala justifikatzen eta akreditatzen bada, jarduera bakoitzari esleitutako denbora eta zeregin bakoitzerako xedaturiko ekipoen dimentsionamendua, haien errendimenduekin, arren eta Administrazio honen aurrean bermatua gera dadin proposaturiko epea beteko dela.

5.- OBREN FINANTZIAZIOA

Obra hainbat urtetan egitekoa izango da, eta Udalaren Aurrekontuko “Udaletxe Berria” izeneko 1 0802 62201 121.00 kontu-sailaren kargura finantzatuko da urte hauetako ekitaldietan:

2008	200.000,00 €
2009	5.800.000,00 €
2010	5.161.896,59 €

6.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA OBREN GAUZATZEA

1. Kontratuaren iraupena kontratua behin betiko adjudikatzen den egunetik behin betiko bermea itzultzen den egunera bitartekoa finkatzen da.

2. Obrak gauzatzeko epe orokorra hemezortzi (18) hilabetekoa izango da, zuinketa egiaztatzeko akta egiten den egunaren hurrengotik kontatzen hasita. Akta adjudikatarioa edo haren ordezkaria aurrean dela egingo da, kontratua formalizatzen denetik gehienez ere bost eguneko epean, SPKLko 212. artikulua eta APKLEOko 139 eta 140. artikuluen arabera eta haietan ezarritako ondorioekin. Aipatutako epe horren buruan, obrek amaiturik egon beharko dute.

3. Obrak dokumentu honetan finkaturiko epeetan hasi, gauzatu eta bukatu beharko dira.

7.- OBRAK EGITEA ETA IKUSKATZEA

1. Obrak kontratuan estipulaturiko klausulei eta haren oinarri gisa balio duen proiektuari hertsiki lotuz egingo dira.

2. Udalaren eginkizuna da obra gauzaten den bitartean hura modu jarraituan eta zuzenean ikuskatzea, horretarako izendaturiko Obretako Zuzendari baten bitartez.

3. Kontratista obligatua dago, obra gauzatzera ez ezik, eraikuntzan hauteman daitezkeen akats guztiez erantzutera, harik eta bermeko epea betetzen den arte.

8.- OBREN PAGAMENDUA ETA LIKIDAZIOA

1. Kontratatista eskubidea du benetan gauzaten duen obra abona diezaioten, hitzarturiko prezioen arabera, obren zuzendariak lista ebaluatuak oinarritzat hartuta hilero egiten dituen ziurtagirien bitartez.

2. Obren egiaztagiriak, kontratistaren konformitatearekin edo errepararekin, alkatearen ebazpenaren bidez onetsiko dira, eta pagamendua Korporazioaren Aurrekontu Orokorreko kontu-sailaren kargura egitea baimenduko da. Egiaztagiri horiek dagokien beharrezko murrizketarekin etorriko dira, baldin eta halakorik gertatu bada. Kontratatista egindako abonamenduek kontura egindako pagamenduen kontzeptua dute, bukaerako neurketan eta likidazioan gertatzen diren zuzenketei lotuak, eta inolaz ere ez dute inplikatzeko beren baitako obrak onesten eta onartzen direnik.

3. Egiaztagiriak egiten diren egunaren hurrengotik hasi eta hirurogei eguneko epearen barruan, kontratazioko organoak onetsi egin beharko ditu eta kontratuaren likidazioaren kontura ordaindu.

9.- ARRISKUA ETA MENTURA

Obraren gauzatzea kontratistaren arrisku eta menturara egingo da, eta hark ez du kalte-ordainetarako eskubiderik izango obretan gertatutako galeren, matxuren edo kalteen kausaz, ezinbesteko kasuetan izan ezik eta betiere berak zuhurtzarik gabe jokatu duelako ez bada.

10.- BERMEKO EPEA ETA OBREN ONARPENA

1. Obrak burututakoan, kontratistak Udalari jakinaraziko dio, eta, hurrengo hilabetearen barruan, obren onarpeneko ekitaldia egingo da, zeinetara joango baitira Udala errepresentatzen duen fakultatibo bat, obren zuzendaritza daraman fakultatiboa eta kontratista, fakultatibo batek urgatzia egoki baderitzo. Obrak egoera onean eta ezarritako preskripzioen arabera badaude, Udala errepresentatzen duen fakultatiboak onartutzat emango ditu, eta dagokien akta egingo da. Une horretan hasiko da bermeko epea, zein urtebetekoa izango baita gutxienez, edo kontratuaren agirian ezarritakoa, seinalatzen badu eta ez bada ezarritako gutxienezkotik beherakoa.

2. Bermeko epea bete aurreko 15 egunen barruan, obraren zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistaren eskariz, obren egoerari buruzko txostena idatziko du, SPKLko 218. artikuluan eta APKLEOko 163.ean eta hurrengoetan seinalaturiko ondorioekin.

Bermeko epea Administrazioak eragozpenik jarri gabe igarotakoan, iraungita geratuko da kontratistaren erantzukizuna.

3. Baldin eta obrak onartzeko moduan ez badaude, horrela agerraraziko da aktan, eta haien zuzendariak seinalatu egingo ditu hautemandako akatsak, beharrezko instrukzioak zehaztuko ditu, eta horiek konpontzeko epea finkatuko du. Behin epe hori igarotakoan, baldin eta kontratistak egina ez badauka, eman ahalko zaio beste epe ezin luzatuzko bat, edo kontratua amaitua deklaratu ahalko da.

11.- EZKUTUKO AKATSENGATIKO ERANTZUKIZUNA

1. Baldin eta, eraikuntzako akats ezkutuengatik, bermeko epea bukatu ondoren obra hondatzen bada, kontratistak kontratua bete ez duelako, hark erantzungo du kalteengatik, onarpeneko datatik kontatzen hasi eta hamabost urteko epean.

2. Epe hori inolako kalterik agertu izan gabe igarotakoan, erabat iraungia geratuko da kontratistaren erantzukizuna.

12.- PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio prezioen errebisioa aplikatzea, SPKLko 77. artikuluaen arabera.

13.- BEHIN BEHINEKO BERMEA ETA BEHIN BETIKOA

1. Lizitatzailleek akreditatuko dute ezen Korporazioaren Kutxan, Udalaren esku, behin-behineko bermea jarri dutela, zeinen zenbatekoa 192.446,49 € izango baita, lizitazioko oinarri gisa ezarritako aurrekontuaren 100eko 2aren baliokidea.

2. Berme hori SPKLko 84. artikuluan ezarritako moduetariko edozeinetan jarri beharko da.

3. Behin-behineko bermea kontratua adjudikatu eta berehala itzuliko zaie interesatuei. Bermea atxiki egingo zaio adjudikatariorari, eta konfiskatu egingo zaie adjudikazioa baino lehen proposamena justifikaziorik gabe erretiratzeko duten enpresei.

4. Adjudikatariora obligatua dago behin betiko berme bat jartzera, zenbatekoz adjudikazioko prezioaren 100eko 5ekoa. Berme hori behin-behineko bermerako ezarritako moduan jarri beharko da.

14.- KONTRATISTAREN SAILKAPENA

Lehiaketa honetan Administrazioarekin kontratatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da kontratistak aurretik eskuratua izatea ondoko sailkapen hau:

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
C	2	d)
C	4	d)
C	6	c)
I	9	c)

15.- OBLIGAZIO TRIBUTARIOAK EDO SEGURANTZA SOZIALAREKIKOAK BETETZEA

Kontratista obligatua geratzen da betebeharrak tributarioak edo Segurantza Sozialarekikoak, laboralak eta laneko segurtasunari eta higieneari buruzkoak betetzera, eta horiek ez betetzearen erantzukizunetik libratua geratzen da Udala.

16.- SANTZIOEN ERREGIMENA

1. Kontratua betetzeari dagokionez, kontratista obligatua dago hura burutzeko ezarritako epe totalaren barruan konplitzera, bai eta epe partzialen barruan ere, baldin eta horrelakoak ezartzen badira elkarren segidan egiteko.

2. Baldin kontratistak, berari lepora dakizkiokeen kausengatik, berandutzan inkurritzen badu epe totala konplitzeaz den bezainbatean, Administrazioak aukeran erabaki ahalko du edo kontratua deuseztatzea edo SPKLko 196.4 artikuluan xedatzen diren penalitateak ezartzea. Eskumen berak izango ditu Administrazioak baldin eta epe partzialak betetzen ez badira eta horrek ikastetxearen funtzionamenduan ondorio negatiboak baditu, edo epeak betetzen hainbeste atzeratzeak arrazoiz susmarazten badu epe totala bete ezina izango dela.

3. Bermea galtzeak edo penalitateen zenbatekoek ez dute salbuesten kontrata berantzeak kausaturiko kalteengatik Udalak jasotzeko eskubidea izan dezakeen kalte-ordaina pagatu beharretik.

4. Baldin eta berandutzea kontratistari lepora ez dakizkiokeen arrazoiengatik izan bada, SPKLko 197. artikuluko 2. puntuan xedaturikoa aplikatuko da. Nolanahi ere, kontratista berandutzeak ez du nahitaezko egingo Administrazioak alde aurretik interpelatu edo jakinarazi beharra.

5. Penaltateen eta berandutzaren zenbatekoa zertifikazioetatik eta, kasua hala bada, bermetik deduzituko da.

17.- KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua deuseztatzeko kausak eta ondorioak SPKLko 206. artikulutik 208.era eta 220.etik 222.era bitartekoek eta APKLEOko 109. artikulutik 113.era bitartekoek eta 172.ak ezarritakoak izango dira.

18.- ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK

Lizitatzailleentzat nahitaezkoa izango da, edozein kasutan ere, "oinarrizko proposamen" bat formalizatzea, erreferentziatzen proiektu tekniko onetsia bakarrik eta literalki hartuz eta baldintza-agiri honetan ageri den gauzatzeko epe berarekin edo laburragoarekin.

19.- ENPRESA LIZITATZAILEAK, DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZAK

1.- Obratzeko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridiko espainiarrek zein atzerriarrek aurkeztu ahalko dituzte proposamenak, betiere kontratatzeke debeku batean sarturik ez badaude eta solbentzia ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala akreditatzen badute, eta kontuan izan beharko dute ezen kontratu honetan 14. oinarriaren jasotako sailkapena eskatzen dela.

Sozietate-talde bateko pertsona juridiko dominanteen kasuan, kontuan hartu ahalko dira taldekoak diren sozietateak, solbentzia ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala akreditatzeko, edota, kasua hala bada, pertsona juridiko dominanteari dagokion sailkapena akreditatzeko, betiere frogatzen badu egiazki bere eskueran dauzkala sozietate horien medioetatik kontratuak gauzatzeko behar direnak.

SPKLko 48. artikulua arabera horretarako tenporalki erabazten diren enpresari-batasunek ere aurkeztu ahalko dituzte proposamenak. Taldea osatzen duten enpresarietako bakoitzak akreditatu beharko du obratzeko gaitasuna baduela eta solbentzia ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala baduela, hurrengo klausuletan erreferentzia egiten zaion dokumentazioa aurkeztuz, eta agiri pribatuan adierazi beharko dituzte izenpetzen duten enpresarien izenak eta zertzeladak, bakoitzak duen partaidetza eta, kontratua indarrean den bitartean, zein pertsonak edo entitatek izango duen Administrazioaren aurrean aritzeko haien guztien ordezkarietza osoa, eta enpresen batasun tenporala eratzeko konpromisoa asumitzen dutela (APKLEOko 24. art.). Aipatutako dokumentu hori batasuna osatzen duten enpresarietako bakoitzaren ordezkariak izenpetu beharko dute.

Proposamenak aurkezteak presuposatzen du lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela dokumentu honetako klausulak, eta Administrazioaren kontratatzeke beharrezkotzat eskatutako kondizio guztiak eta bakoitza betetzen dituelako deklarazio erantzukizunpekoa egiten duela.

2.- Lizitatzailleek bina gutun-estalki itxi aurkeztuko dituzte, norberak edo ordezkatzeko duen pertsonak izenpetuak; horietan adieraziko dituzte, entitate lehiakidearen merkatu-izenaz eta izendapenez gain, lehiaketaren izenburua, eta ondoko hau edukiko dute: lehenak (A)

lehiaketan parte hartzeko beharrezkotzat eskaturiko dokumentazioa, eta bigarrenak (B) proposamen ekonomikoa, baldintza-agiri honetan jasotako ereduaren eta adjudikatzeko irizpideen arabera.

2.1. Dokumentazio administratiboa. A gutun-estalkia

Estalki horretan, nahitaez, ondoko dokumentu hauek sartu beharko dira:

a) Pertsona juridikoak diren enpresarien obratzeko gaitasuna, zein akreditatuko baita enpresa eratzeko eskrituraren bitartez edo, kasua hala bada, aldaberritzekoaren bitartez. Eskritura Merkataritzako Erregistroan inskribatua egongo da baldin eta betebeharrak hori eskakizun badiu aplikatzeko zaion legezko komertzialaren arabera. Horrela ez bada, obratzeko gaitasunaren akreditazioa enpresa eratzeko eskritura edo dokumentuaren bidez edota estatutuen edo fundazioko aktaren bidez egin beharko du. Horietan agertu beharko du zein arauk erregelatzen duten enpresaren jardura, eta, beharrezkoa denean, dagokien Erregistro Ofizialean inskribatuak egon beharko dute.

Enpresa ez espainiarren kasuan, Europako Komunitateko estatu kideetakoak edo Europako Espazio Ekonomikoaren Akordioa sinaturiko estatuak badira, obratzeko gaitasuna erregistroetako inskripzioaren bidez akreditatuko dute, edota APKLEOko I. eranskinean adierazten diren zertifikazioak aurkeztuz, kontratu ezberdinen arabera.

Aurreko paragrafoko baldintzak betetzen ez dituzten enpresa atzerritarren kasuan, obratzeko gaitasuna akreditatzeko, enpresa kokaturik dagoen lurraldean Espainiak duen Misio Diplomatiko Permanenteak edo Bulego Kontsularrak egindako txostena aurkeztu beharko dute, zeinetan adierazi beharko baita, aurrez enpresak akreditatu ondoren, Erregistro lokal profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean inskribatuak daudela edo, horren ezean, trafiko lokalean ohikotasunez dihardutela kontratuaren xedeak hartzen dituen jardueren esparruan. Kasu horietan, gainera, SPKLko 44. artikuluan aipatzen duen elkarrekotasunaren txostena ere gehitu beharko da.

Baldin eta enpresari indibidual batek konkurritzen badu, Identitateko Dokumentu Nazionala erantsi beharko du, bai halaber, kasua hala bada, ahalordetzeko eskritura, behar bezala legezkotua, edo haren fotokopiak, behar bezala autentifikatuak.

b) Erantzukizuneko deklarazioa, II. Eranskinean datorren ereduaren arabera, zeinetan adieraziko baitu lizitzailea ez dagoela SPKLko 49. artikuluan jasotzen diren kontratatze debekuen ezein kasutan, erreferentzia espresu eginez artikuluko horren c) letrari, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko arau-hauste oso larriagatik santzio irmorik jaso ez izanaren gainekoari; eta, gainera, egunera dagoela obligazio tributarioak eta Segurantzaren Sozialarekikoak betetzeari dagokionez, APKLEOko 13 eta 14. artikuluek ezartzen duten irismenean eta forman.

c) Proposamenak besteren izenean sinatuta aurkeztzen diren pertsonen kasuan, horien aldeko ahalordea, horretarako askietsia. Baldin eta lizitzailea pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritzako Erregistroan inskribatua agertu beharko du. Egintza jakin baterako ahalordea baldin bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritzako Erregistroan inskribatua egotea, Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduko 94.1.5 artikuluen arabera.

d) Solbentzia ekonomiko, finantzario eta teknikoko baldintzak egiaztatzen dituztenak.

Alabaina, akreditazio hori SPKLko 64 eta 65. artikuluetan ezarritako medioetako edozeinen bidez egin ahalko da.

Baldintza horren ordez, beharretsitako sailkapena eskatuko da.

e) Behin-behineko bermea ezarri duela egiaztatuko duen erreziboa.

Enpresarien batasun tenporalen kasuan, batasunean parte hartzen duten enpresetako batek edo batzuek ezarri ahalko dute behin-behineko bermea, betiere guztien artean zenbateko errekeritua osatzen badute eta batasun tenporala osatzen duten kide guztiak solidarioki bermatzen badituzte.

f) Atzerriko enpresek deklarazio espres bat aportatuko dute, zeinetan adieraziko baitute beren buruak Espainiako edozein mailatako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dituztela kontratutik zuzenean edo zeharbidez sor litezkeen intzidentzia guztietarako, eta, hala badagokie, uko egiten diotela lizitatzailari legokiokeen atzerriko barrutiko jurisdikzioari.

g) Komunitatekoak ez diren enpresa atzerritarrek, gainera, Espainian sukurtsala irekia dutela akreditatu beharko dute, beren operazioetarako ahalordeak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritzako Erregistroan inskribatuak daudela.

h) Gutun-estalki horretan sartutako dokumentu guztien lista.

Dokumentu guztiak jatorrizkoetan aurkeztuko dira, edo haien kopien bitartez baldin eta benetakoen izaera badute indarrean dagoen lejislatzioaren arabera.

Kontratisten Erregistroan inskribaturik aurkitzen diren lizitatzailerek, a) eta d) paragrafoetan errekerituriko dokumentazioaren ordez, erregistroaren arduraduna den legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahalko dute, indarrean dagoela dioten zinpeko deklarazioarekin batera. Kontratisten Erregistroa Kontratisten Erregistro Ofizialari eta Sailkapena ezartzeari buruzko 12/1998 Dekretu otsailaren 3koak arautzen du, eta Kontratisten Erregistro Ofizialaren funtzionamenduko arauak ezartzen dituen 1998ko otsailaren 4ko Aginduak garatzen du.

2.2. Proposamen ekonomikoa eta adjudikatzeko irizpideak (B estalkia)

a) Proposamenak lehiaketaren xedeko lana egiteko kontrata-prezio gisa eskainitako balioa adieraziko du, balio erantsiaren gaineko zergaren dagokion zenbatekoa ere sartuta.

19-2 klausulan zehaztutako forman aurkeztuko da, «Proposamen Ekonomikoa» erreferentzia gehiturik, III. Eranskin gisa doan ereduaren arabera idatzia. Proposamenean, aparteko kontu-sail gisa adierazi beharko da jasanarazi behar den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa.

Lizitatzaille bakoitzak ezingo du proposamen bat baizik aurkeztu, edozein dela ere zeinetan aurkez daitekeen egoitzen kopurua. Ezingo du, halaber, beste batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik izenpetu baldin eta banaka egin badu. Printzipio hori urratzeak automatikoki ekarriko du hark aurkeztutako guztiak atzera botatzea.

b) Memoria, adjudikaziorako oinarri gisa balio duten irizpideekin.

20.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteko epea BERROGEITA HAMABI (52) egun naturalekoa izango da, iragarpena Europako Batzordera igortzen den egunetik kontatzen hasita, eta data hori agerraraziko da gainerako iragarpenetan. Lizitazioaren publikazioa orobat egingo da BOEn eta PAOn, bai halaber kontratatzailearen profilean. Behin proposamen bat aurkeztutakoan, ezingo da erretiratu inolako aitzakiagatik.

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, enpresariak justifikatu egin beharko du zein egunetan ezarri duen igorpena posta-bulegoan, eta eskaintza igorri izana egun berean iragarri beharko dio organo kontratatzaileari, telex, telegrama edo fax bidez. Bi baldintza horiek betetzen ez baditu, proposamena ez da onartuko baldin eta kontratazio-organismoak hura epea amaitzen den eguna baino geroago jasotzen badu. Dena dela, esandako egunaren biharamunetik 10 egunen buruan proposamena jaso ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

21.- KONTRATAZIOKO MAHAIA

Kontratazioko Mahaia honela osatua egongo da:

- Presidentea, zeina Udalbatzako alkate presidentea izango baita, edo hango kide zeinengan delegatzen duena.
- Bi mahaikide, alkateak Udalbatzako zinegotzien artean izendatuak.
- Udalbatzako idazkaria, edo hirigintzako teknikaria, aholkulari juridiko moduan.
- Funtzen kontu-hartzailea.
- Udaleko Hirigintza Departamentuko arkitektoa.
- Idazkari bat, Udaleko idazkariak kontratazioko organoari atxikitako langileen artean izendatua.

22.- AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK IREKITZEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, espediente administratiboaz arduratzen den unitateak, behar diren teknikarien kolaborazioarekin, **A estalkian** sartuak dauden dokumentuak aztertuko ditu eta horiei buruzko txostena egingo dio Kontratazioko Mahaiari, zeinek dokumentu horiek kalifikatzeri ekingo baitio.

Baldin mahaiak akats materialik ikusten badu eskaintzaileek aurkeztutako dokumentazioan, eman ahalko du, egoki baderitzo, lizitatuzaileak akatsa zuzentzeko epe bat, gehienez ere hiru egun balioduneko.

2.- Udalaren iragarki-taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko den iragarpenean zehaztutako lekuan, egunean eta orduan, eta edozein kasutan ere eskaintzak aurkezteko epea amaitzen duen egunetik kontatzen hasi eta gehienez ere hilabeteko epean,

B gutun-estalkian sartutako proposamenak irekitzeko ekitaldi publikoa izango da, eta horretarako bilduko da Kontratazioko Mahaia.

Idazkariak ekitaldiaren akta idatziko du, zeinetan fidelki jasoko baitu mahaiaren deliberazioen emaitza.

3.- Ekitaldi publikoa amaitutakoan, aurkeztutako proposamenek dagokien txosten teknikoa jasoko dute. Ondoren, Kontratazioko Mahaia organo eskudunari zuzenduko dizkio, lehiaketaren adjudikazioaz erabaki dezan, aurkeztutako proposamenak, aktarekin eta aproposa deritzon proposamenarekin batera, zeinek betiere adjudikazioko irizpideen ponderazioa jasoko baitu.

23.- ADJUDIKAZIOA

Kontratazioko organoak, aukeran, kontratua adjudikazioko irizpideen arabera onuragarriena den proposamenari adjudikatzeko ahalmena izango du, edota lehiaketa esleitu gabe deklaratzekoa, baldin eta baldintza-agiri honetan ageri diren irizpideen arabera onartzeko modukoa den eskaintzarik edo proposamenik ez badago.

Behin-behineko adjudikazioa gehienez ere bi hilabeteko epean xedatu beharko da, ekitaldi publikoa egiten den egunaren hurrengotik kontatzen hasita. Adjudikazioa epe horretan xedatu ezean, enpresariak eskubidea du bere proposamena erretiratzeko eta depositaturiko bermea itzul diezaioten.

Behin-behineko adjudikazioa ezingo da behin betiko bihurtu hamabost egun baliodun igaro arte, hura kontratazioko organoaren kontratatzaile-profilean publikatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, adjudikatarioak betebeharrak tributarioak eta Segurantzaren Sozialarekikoak betetzeaz den bezainbatean egunera dagoela egiaztatzen duten sinestamenduak aurkeztu beharko ditu, bai eta JEZn alta emanda egotearenak ere. Azken hori akreditatzeko, jadaneko urtaldiari dagokion alta edo JEZren azken erreziboa aurkeztuko du, zerga horren matrikulan baja eman ez duela dioen erantzukizuneko deklarazioarekin batera.

Era berean, epe horretan ezarri beharko du behin betiko bermea.

Behin-behineko adjudikazioa behin betiko bihurtutzat joko da baldin eta adjudikatarioak, aipaturiko epe horretan, seinalaturiko dokumentazioa aurkezten badu eta behin betiko garantia ezartzen badu, alde batera utzirik gerta litekeela errekurtsio bereziko bidean errebisatzea, SPKLko 37. artikuluan xedaturikoaren arabera. Horrela gertatu ezean, Administrazioak kontratua behin-behineko adjudikatarioari behin betiko izaeraz ez adjudikatzeko aukera izango du, SPKLko 135.5 artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Talde berekoak diren hainbat enpresak formulaturiko proposamenen ebaluazioa APKLEOko 86. artikuluan xedaturikoaren arabera egingo da.

Aurkezturiko proposamenak, hala onartutzat deklaratuak nola ireki gabe baztertuak edo ireki ondoren atzera boteak, beren espedientean artxibatuko dira. Kontratua adjudikatutakoan

eta errekurtsioak jartzeko epeak igarotakoan, inork halakorik jarri ez badu, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesatuen eskura geratuko da.

24.- KONTRATUAREN/ZESIOAREN FORMALIZAZIOA

Kontratuaren formalizazioa kontratua behin betiko adjudikatzen denetik kontatzen hasi eta 10 egun naturalen barruan egingo da. Baldin eta obrak Enpresarien Batasun bati adjudikatzen bazaizkio, batasun horren eraketa akreditatu beharko dute, eskritura publikoan, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, bai eta enpresa-taldeari esleituriko IFZ ere.

Kontratutik datozen eskubideak eta betebeharrak zeditu ahalko zaizkio beste hirugarren bati, betiere SPKLko 209. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

25.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK ETA EXIJI DAKIZKIOKEEN GASTUAK

Honako kontratu honen erregimen juridikotik segitzen diren betebeharrak orokorrean gain, ondoko betebeharrak espezifikoki hauek izango dira:

1. Kontratista obligatua dago arlo laboralean, Segurantza Sozialekoan eta laneko segurtasun eta higienekoan indarrean dauden xedapenak betetzera.

2. Kontratista obligatua dago obrak iragartzeko kartelak bere kontura instalatzera. Halaber jarri beharko ditu indikaziozko seinaleak, zeinek adieraziko baitituzte obrarako sarbidea, lanek okupaturiko zonako zirkulazioa eta haien martxagatik arriskua izan dezaketen puntuak, hala zona horretan bertan nola haren mugetan eta ingurunean.

3. Kontratatzaileak Aginduen eta Intzidentzien Liburuak eraman beharko ditu, aldezturik diligentziatuak, Estatuaren Obrak Kontratatzeke Baldintza Orokorren Agiriko 8. eta 9. klausuletan jasotako xedapenen arabera.

4. Kontratatzaileak, salbu eta lehenik baldin badu jarraian zehazten sailkapena, obligatua egongo da, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorreko 36. artikuluko 3. puntuan xedaturikoaren arabera, eta SPKLko 54. artikuluko arabera, jarraian zehazten diren obra parteak edo kontzeptuak azpikontratatzaile, hurrengo talde edo azpitalde hauetan sailkatutako beste kontratatzaile edo enpresari batekin edo batzuekin. Horietan nagusiari ezingo zaio eskatu horietan sailkatua egon behar izatea.

	TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
Ondasun inmobiliario			
historiko-artistikoen zaharberritzea:	K	7	d)
Aireztapena, berokuntza eta klimatizazioa:	I	2	d)
Telekomunikazioak:	I	7	d)
Metalezko arrotzeria:	C	9	d)

Azpikontratatzeke betebeharrari lotutako obra-kontzeptu hauen guztien zenbatekoak ezingo du gainditu kontratuaren prezioaren 100eko 50a.

5. Adjudikatariorak, obrak bukatutakoan, bukaerako egoeraren planoak aurkeztu beharko ditu, obrak gauzatzen ziren bitartean gertatu diren aldaketekin, paperean eta euskarri informatikoan.

26.- AZPIKONTRATAZIOA

Adjudikatariorak kontratuaren parte bat gauzatzeko beste hirugarren batzuk kontratatzen baditu, SPKLko 210. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Era berean, subkontratastei eta hornitzaileei SPKLko 211. artikuluan ezarritakoa betez pagatu beharko zaie.

27.- PROIEKTUA ALDATZEA

Kontratazioko organoak dauka interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzeko prerrogatiba, betiere SPKLko 194, 202 eta 217. artikuluetan eta APKLEOko 158. artikulutik 162.era bitartekoetan xedaturikoari loturik.

28.- OBRAK ETETEA

Kontratuaren etenaldia gertatuz gero, SPKLko 203, 220 b) eta c) artikuluetan eta APKLEOko 103, 170 eta 171. artikuluetan xedaturikoa aplikatuko da. Etenaldi tenporal, partzial, total edo definitiboaren kasuetan, etenaldiaren akta egingo da, Klausula Administratibo Orokorren dokumentuko 64. klausulan ezarritako eskakizun eta formalitateekin.

29.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIOA

1. Kontratazioko organoak dauka kontratu administratiboak interpretatzeko eta betetzerakoan agertzen diren zalantzak ebazteko prerrogatiba. Orobat, aldatu ahalko ditu kontratuak interes publikoko arrazoiengatik, eta erabaki ahalko du haien deuseztatzea eta zehaztu deuseztatzearen ondorioak, betiere Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoan eta Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen 1098/2001 Errege-Dekretu urriaren 12koan ezarritako mugen barruan eta seinalatutako baldintza eta ondorioei loturik.

Interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko dituen prerrogatibak baliatuz kontratazioko organoak hartzen dituen erabakiak, aurrez aholkularitza juridikoaren txostena badute, berehala izango dira bete beharrekoak.

2. Kontratu administratiboaren interpretazioaz, aldatzeaz, desegiteaz eta ondorioez sorturiko auziak kontratazioko organo eskudunak ebaztuko ditu. Haren erabakiek bukaera emango diote bide administratiboari, eta horien kontra administrazioarekiko auzien errekurtsua jartzen ahalko da, jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezarritakoaren arabera. Hori, ordea, ez da eragozpen izango interesatuek, nahi badute, berraztertze errekurtsua jar dezaten, Administrazio Publikoaren Erregimen Juridikoari eta Prozedura Administratibo Komunari buruzko 30/1992 Legearen 166 eta 177. artikuluetan ezarritako moduan.

30.- ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu administratiboa ondoko hauek arautuko dute:

- a.- Dokumentu honetan jasotako klausulek eta onetsitako proiektuak.
- b.- Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak.
- c.- 1098/2001 Errege-Dekretu Legislatibo urriaren 12koak, zeinen bidez onesten baita Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, betiere aurrekoaren aurka ez doanean.
- d.- Kontratazio administratiboa erregelatzen duen eta aplikatzekoa zaion beste edozein xedapenek.
- e.- Osagarri moduan, arau zibil pribatuak aplikatuko dira.

31.- KONTRATISTAREN PROFILA.

<http://www.lasarte-oria.org/contratacion>

I. ERANSKINA

Obren izendapena:

A-1 Okendo IUAn Udaletxea eraberritzea eta handitzea

Udaleko arkitekto Jose Manuel Elicegui Sarobe jaunak eta kanpoko kolaborazioak idatzitako gauzatzeko proiektua

II. ERANSKINA **DEKLARAZIOAREN EREDUA**

(Pertsona naturala edo fisikoa denean)

___ jaunak / andreak, adinez nagusia, DNla ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, deklaratu du Administrazio Publikoarekin kontratatzeke ahalmenduta dagoela, zeren, obratzeko gaitasun osoa izanik, ez baitago sarturik Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak 49. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako ezeinetan, eta egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio fiskalak eta Segurantzaren Sozialarekikoak betetzeari dagokionez.

Era berean, neure gain hartzen dut, adjudikatario gertatu gero, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aporteratzeko konpromiso formala.

Partikularki, espresuki deklaratu du ez duela sartzio irmorik jasotzeko laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko arau-hauste oso larriagatik, SPKLko 49 c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

(Lekua, data eta sinadura)

(Sozietatea edo pertsona juridikoa denean)

___ jaunak / andreak, adinez nagusia, DNla ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, zeinek ordezkatzeko baitu ___ enpresa, IFZ ___ zenbakikoa eta egoitza soziala ___ helbidean duena, deklaratu du bai bera bai ordezkatzeko duen enpresa Administrazio Publikoarekin kontratatzeke ahalmenduta daudela, ezen eta, obratzeko gaitasun osoa izanik, ez daude sarturik Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak 49. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako ezeinetan, eta egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio tributarioak eta Segurantzaren Sozialarekikoak betetzeari dagokionez.

Era berean, neure gain hartzen dut, adjudikatario gertatu gero, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aporteratzeko konpromiso formala.

Partikularki, espresuki deklaratu du ez duela sartzio irmorik jasotzeko laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko arau-hauste oso larriagatik, SPKLko 49 c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

(Lekua, data eta sinadura)

III. ERANSKINA **PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

_ jn.ak, bizilekua ___ helbidean eta DNla ___ zenbakikoa eta ___ herrian ___ datan jaulkia duenak, bere izenean, edo ___ren ordez, nola akreditatzen baitu ___ren bidez,

ADIERAZTEN DU

LEHENIK

EBAOn, BOEn eta ___ zenbakiko eta ___ datako PAOn argitaratutako iragarpenaren berri jakinik, ados dagoela ___ kontratua enkante bidez eta prozedura irekian adjudikatzeko beharresten diren eskakizun eta baldintza guztiekin.

BIGARRENIK

Ezagutzen dituela **A-1 OKENDO IUAn UDALETXEA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO** obren Proiektua eta Klausula Administratibo Partikularren Agiria, eta espresuki asumitzen dituela eta osoki men egiten diela.

HIRUGARRENIK

Aipaturiko obrak Proiektu horretan eta Klausulen Agirian ezarritakoari loturik gauzatzera konprometitzen dela, zenbateko honetan: ___ euro (BEZa sartu gabe) eta ___ euro, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak (letraz eta zenbakiz).

LAUGARRENIK

Lasarte-Oriako Udala espresuki autorizatzen duela Foru Aldundiaren Zerga Administraziora eta Segurantza Sozialaren Diruzaintza Orokorrera joateko eta errepresentatzen dudan enpresaren informazio tributarioa eta soziorabala eskuratzeko, arren eta konpli daitezen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 43.1.e) artikulua eta Langileen Estatutu Orokorraren 42. artikulua beharresten dituzten xedeak.

(Lekua, data eta proposamengilearen sinadura).